

Domeka honetan Laskurainen 2. partidua Astelenan. 17:00etan.

piipilean

Soraluzeko Hamabostekaria 51. alea 2002ko ekainaren 14a



**Baserrian ekaina
lana nahi aina**



**Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean**

GOL

GOL, S.A. Industriak

Sagar Erreka, 19 45 PK

20590 SORALUZE

Tfnoa. 943 75 21 00 / <http://www.gol.es>


TXOKO KAFETEGIA



Kafe ederra hartzeko txokorik onena!


Kalebarren 22 behea, telf: 943751789

Mendata taberna



Berezitasunak:
*Txipiroiak, Barazki
Menestra, Gixauak...*
Asteburuan plater
konbinatuak
*Enkarguak etxerako
(bazkariak eta afariak)*

Kalebarren, 5
Tfnoa 943 75 13 87



Kiru Muntaiak

Blas Elizburu Kortabarria
Sukalde, enpotratu
eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.

Errekaldia, 30
Tfnoa 943 75 13 12
Eskuko tfnoa 670 05 18 20





Donosti ez da udaleku bakarrik

MARI KARMEN ORTUETA

Ez, zoritxarrez ez, askotan probintziatik ona ez gatoz oporrak pasatzera, baizik gaixoetxeren batera, ni gaur etorri naizen bezela, bainan zorionez ez gaixo bezela, baizik gaixo bati laguntzen eta zorionez diot ez bakarrik suertez ni gaixorik ez nagoelako, gaixo baten ondoan egotean asko ikasten delako baizik. Zenbat pentsakizun datozkizun burura. Ze hausnarketa sakon egitera iristen zeran... gaur egun bizi geran abiada zoro honekin, pentsatzeko ere ez degu une bat hartzen, adibidez osasuna izatean ze altxor degun guregan eta okerrera galdu ere egiten degu hain konforme gaitzak geralako asetu eziñaren ezinez ihesbide bezela bide okerrak hartuz, natura bera ere mirestu beharrean ez dakigu berakin bizitzen, sarritan bere gainetik jarri degu, inozuok. Larre motxean hezia izanik hor zehar joateko kutiziarik izan ez badet ere, gaur hainbesteri hainbat buruhauste sortzen die nora joan jakin eziñik, hasi Gabonak direla, jarraitu aste santutan eta bitarteko zubiak kontatzeke udako oporretan hor dabilta asmatu ezi-

ñik nora jaso hankak, adibidez, Nigerian aste bete bat pasatzea ez litzatekela gaizki etorriko, nik gaur hemen hospitalean ikasi detan eran gutxinez norberaren burua gehixeago baloratzeko eta berdin ingurukoak, ze hasi laguntzen nagoen gaixoa-rengandik agertzen duen bizi pozagatik eta astelena izanagatik hainbat sendagille, erizain eta laguntzaile denak eskeintzen duten irrifar goxua ez da ordaintzen.

Barka diezaidazue gaur hona denporapasa ekarri detan Pil-Pileko azken aleko kolaboratzaileak bezain trebea ez baina idazten, baina une batez bururatu eta beste papelik ezean esku serbilleta bat hartu eta nere gogoetak idazten hasi naiz aldamenen dudan gaixoa pasatzen ari den une txarren tartean bare aldi baten ondoren loak hartu duanean. Denpora asko ez dela erizaintzaz hari zirela irratiz entzun nuen erizainak ez zirela medikuen erizainak, baizik gaixoenak eta hori gaur garbi asko ikusi det. Kasualidadez bateren bat balego irakurriko duenik, nere esker eta zorion beroenak.

Telegrapak

Baserrixan ez da giro. STOP. bedar batzeko garaixan titular gutxi izaten da. STOP. Eta bankilluan suplente asko. STOP. merienda ordurako mahai bete lagun. STO. hori bai dela majia hori!. STOP. 37 Plaentxiar egin dira organu emaile berri. STOP. eta egin ez ziranak?. STOP. zenbat izan ziran?. STOP. mundu honetan badare gizakixaren ulermenetik urruntzen diren kontu batzuk. STOP. HERRIXA garbi mantentzeko 11 aholkuak primerakuak. STOP. baina bi hiru kontutxo. STOP. motorrarekin zarata ateratzen dabenak ez dabe txupa beltzik eta sudurrian belarririk eruean. STOP. hola jantzitta doiazanak autostopian edo urbanuan ibiltzen dira. STOP. zaratia etaratzen dabenak "elegantetxuauak" izaten dira normalian. STOP. Balkoiak garbi mantentziaren kontua be ondo dago. STOP. etxe barruan tokixa daukanarendako bai. STOP. Errealzaliak 4 atletikzaliak 8 eh Monagillo?. STOP. zapatuan historian letra handiz markatuta geldituko den partidua jokatu ko Ezozin. STOP. Animo eta txarrenak irabazi deixela. STOP. eta kontuz gabeko parrandiakin!



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkarte
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze.
Telefona 943 75 13 04

Zuzendaria: Gurutze Ariznabarreta

Erredakzio burua: Egoitz Unamuno

Erredaktoreak: Enara Agirre, Eguzkine Aldazabal, Gurutze Ariznabarreta, Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Jon Oregi, Oier Oregi, Eduardo Pombar, Egoitz Unamuno eta Arienne Unamuno.

Publizitatea: Jon Oregi eta Jon Basauri
(943751304 tel.)

Banaketa: Pil-pilean **Ekoi**zpena: 1.850 ale

Inprimategia: Gertu Koop. **Azala:** Aitor Madrid

Diseinua eta Maketazioa: Aitor Madrid

I.Z.K.-a: G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORALUZEKO
UDALA



EUSKO
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA



Erreportaia

Eguzkiak gogor berotzen badu, aiton amonak ezinegonean izango dira, behin eta berriz belarrak batzera joan behar dela errepikatuz. Azkenean, gazteak etsita, traktorea hartu eta eguzkiaren galdapean abiatuko da ebakitako belarra dagoen lekura. Batzuk eskubararekin eta beste batzuk sardearekin, gurdi mekanikoaren bizkarra ondo bete eta zelaia garbi garbi laga ostean, etxerako bidea hartuko du berriz.

Oraingoan baserriko bizimoduaren berri.

Zorion agurrak



Agus Jauntsarats eta Xabier Jauntsarats
2002 - 6 - 7
2002 - 6 - 8
Mila ZORION gure etxeko mutilei!!!
Garazi ta amatxoren partez

Amparo Iburguen
Zorionak!
2002 - 6 - 13
Ondo pasa zure urtebetetze eguna
Lagunen partez

Josu Gil
Zorionak!
2002 - 6 - 6
Soraluzeko mutilik formalenandako, segi horrela
Etxekuen partez



Rosarito Zabaleta
2002 - 6 - 23
Zorionak tia!!
Ondo ondo pasau zure eguna.
Iker eta Amaian partez



Ander Ariznabarreta
Zorionak!
2002 - 6 - 17
Zapaburu baten modukua zara, ezin geldi egon.
Etxekuen partez



Maria Antonia Isasti
Zorionak poxpolin!
2002 - 6 - 13
Zorionak amama!!!

Etxekuak eta beste senidiak

Iñigo Gabilondo
Zorionak!
2002 - 6 - 14
Txirrindulari!
Zure lehengusuen partez

Aitor Aldazabal eta Maddi Aldazabal
Zorionak!
2002 - 6 - 16 eta
2002 - 6 - 14
Muxu haundi bat!
Soraluzeko famili haundixan partez jajajaja

Agenda

MUSIKA ESKOLIAREN KONTZERTUA
Ekainaren 14an

22:00etan Udaletxeko saio aretuan

ERREALZALE ETA ATHETIKZALIEN ARTEKO PARTIDUA
Ekainaren 15ian

Ezoziko futbol zelaixan
17:00etan

"LA CASA DE ALBA BERNARDEZ" ANTZERKIXA

Ekainaren 15ian
Eibarko Unibertsitate Laboralian

20:30etan
Soraluzeko Zubia Antzerki Taldiaren eskutik

EZOZIKO ERMITTIAREN INAUGURAZIÑUA
Ekainaren 22xan

18:00etan Ezozira prozesiñua Parrokixatik urtenda.

JAIKETA KARTEL LEHIAKETIA
Ekainaren 15ian
Sari banaketia.

GIPUZKOAKO KUTXAREN OHARRA:

Aste honetan egoitza aldaketa egin dugu eraberritze lanak direla eta. Orain kalebarren kalean gauzkazue. Barkatu eragozpenak.nak.UTXA

Gutunak

Jon Abrilen aldeko testua

Jon Abril kazetariaren aurka datorren ekainaren 11n Madrilgo Auzitegi Nazionalen eginen den epaiketaren aitzinean, bere lankideek honakoa agertu nahi dugu:

1. Ongi aski ezagutzen dugula aspaldidanik Jonek kazetari gisa egindako lana, hainbat hedabidetan (Argia, Aizu, Euskaldunon Egunkaria, Ttipi-ttapa, Nabarra, Xorroxin Irratia, Euskadi Irratia...), erredaktore gisa zein kolaboratzaile lanak eginez.

2. Euskara eta kultura izan ditu Jonek urte hauetan guztietan bere lanaren ardatz, eta horretara bideratu dituela

bere indar guztiak, bere ibilbideak erakusten duen gisan.

3. Bere aurkako epaiketa hau, oro har, euskarazko komunikabideen aurkakoa, eta herri-komunikabideen aurkakoa dela, baina baita kazetari ororen aurkakoa ere. Jonek aurkako epaiketak erakusten du informazio eskubiderako eta adierazpen askatasunerako dauden zailtasunak eta hutsuneak. Jonek aurkako epaiketa, finean, kazetariaren jardunaren aurkako epaiketa da, eta horregatik salatzen dugu ozenki.

4. Prozesu hau Espainiako Justiziari eta Espainiako Gobernuak euskal kulturaren eta euskal kutsua duen ororen aurka abian paratutako estrategiaren parte da,

eta horregatik, batere funtsa juridikorik gabeko auzia izaki, berau bertan behera uztea eskatzen dugu.

5. Errugabetasun presuntzioa hasieratik urratu zen Jon Abrilen zein Ttipi-ttapa-aren aurka. Hedabide guztiek informatzeko duten eskubidea kontuan izanik, eta komunikazio eremu propio bat eratzeko garaian herri-komunikabideek duten garrantzia aintzat hartuta, hauen lana gorestea baino ez dagokigu.

Agiri honekin bat eginez, Euskal Herri osoko beste herri aldizkari askok bezala Pil-pileanetik gure atxikimendua adierazten diogu Jon Abrili eta gaitzespen osoa egotzi nahi izan dizkioten karguei.

Pil-pilean

ITUR iturgintza

Iturgintza, Gasa Berogailuak Sukaldeak eta Bañuak

Santa Ana, 20 Behea
Tlfonoa: 943 75 12 41
Sakeleko tlfonoa: 639 17 96 96



BELARRAK
LORADENDA ETA BELARDENDA
EROSKETAK ETXERA DARAMATZAGU

Santa Ana, 2 behea
Tel.: 943 75 30 11
Eskukoa telfnoa: 646 43 90 40
20.590 SORALUZE



Zer irizten dotsazu?**Zelan bizi dozu azterketa garaixa?**

Txaro Lete
44 urte Langilia

Oso ondo, nere alabia oingoz ondo dabil eta ez daukagu arazorik.



Aiora Elizburu
21 urte Ikaslia

Bueno, beti zare nerbiosa ta, baina ni oin karrera bukatzen nao. Karrera zailaguak eitten dabilen jentia, horrek bai, ibiltzen dia gaizki.



Jose Mari Unamuno
54 urte Tornerua

Nahiko gogorra pentzaten jata. Norberak be sufridu eitten dau alabak ikasten ta ahaleginian ikusitta, lagun-du nahi ta ezin.



Gorka Prieto
24 urte Injenierua

Garairik onena zan, goizian trankil trankil jaiki, klase bare... Onduen bizi zaran garaixa da ta oingo gaztiak disfratau ein biharko leukie.



Maria Lopez
81 urte Jubilatua

Asko sufritzen da. Nik nere seme alabekin preokupaziño haundixa eukitzen neban karrera etarako zeben ala ez, baina azkenian danak ondo etara zeben.



Gotzon Elizburu
45 urte Ofizinista

Ondo, hau danori pasau jaku lehena-go be eta ez dao beste erremediorik. Ikasi ein bihar danian ba ikasi ein bihar.

Ugaitz Catalan eta
Enara Agirre



SAN ANDRES

Iturgintza

*Iturgintza, Gasa, eta
Berogailuak
Sukaldeak eta bainuak*

Errebal kalea 2 behea
Tfnoa 943 75 16 46



MENDIZABAL

OKINDEGIA

Kalebarren,10
Telefonia 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefonia 943 75 13 99
SORALUZE

Uriarte gotzaina Ezoziko ermitaren inaugurazioan izango da


Datorren ekainaren 22an, zapatuan inauguratuko da Ezoziko ermita eraberritua. Atari eta teilatu berriak eta barrualdeko eraberritze ikusgarria dira egin diren lanik aipagarrienak. Oraindik erretablo eta santuen irudiak, kanpalkaldeko fatxada eta sakristia eta abar konpontzeko gelditu diren arren, ermitari edertasun eta indar berri bat eman dion proiektua gauzatu ahal izan da. Guztira 7.288.126 pezetako kostua izan dute ermitako lanek. Inaugurazio ekitaldian, herriko abadeaz gain, Gipuzkoako Uriarte Gotzaina eta Soraluzeko Udaleko ordezkariak ere izango dira. Ezoziko Ama Abesbatza ere bertan izango da. Inaugurazio eguneko egitaraua, 18:00etan hasiko da herriko parrokiatik



Ezoziko Amaren irudi eraberritua aldean dela egingo den prozesioarekin. Ezozira heldutakoan, Ermitaren Konsagrazio ekitaldia egingo da, Ezoziko Ama Abesbatzaren laguntzaz.

Musika eskolarako matrikulazioa

Zabalik dago dagoeneko, Musika Esolako 2.002-2.003 ikasturterako matrikula epea eta zabalik izango da ekainaren 21erarte. Matrikulak 16 euroko kostua du eta 14 urtetik gorako ikasleek eman dezakete izena: klarineta, saxofoia, pianoa, kitarra, akordeoia, trikitixa, panderoa, txistua, xirula, biolina, tronpeta, tronboia, baxu elektrikoa eta kitarra elektrikoa jotzen ikasteko. Ikasturteak irailean hasi eta ekainera bitartean iraungo du. Informazio gehiagorako, jo arratsaldero institutuan izango diren musika irakasleengana eta eskatu matrikulazio fitxa.



**ZABALDU ATEAK MUSIKARI
ETA MUNDU BERRI BAT EZAGUTUKO DUZU!**

Herria garbi mantentzeko 11 arau



Udalak, Izartu programaren barruan herritarrak "herrixa garbi mantzeko kontzientziatzeko" 10 arau eta bat gehiago batzen dituen liburuxka kaleratu du. Soraluzeko irudiz ilustratuta "garbitasunerako aholku" batzuk ematen ditu.

Ohiana Uribe garaile Argazki Rallyan



Ohiana Uribe izan da Soraluzeko Institutuko gurasoek antolatutako Argazki Rallyko garailea. Bigarren Iñaki Najera izan da eta hirugarren Goretty Oya. Guztira 40 ikasle inguruk parte hartu dute Rallyan eta antolatzaileak oso gustora daude izandako arrakastaz

Ekainaren 19rako Greba Eguna



Ekainaren 19 rako greba deialdia egin dute ELA eta LAB sindikatu abertzaleek. CCOO eta UGT sindikatuek berriz ekainaren 20rako ELA eta LABek PPko gobernuaren dekretu berraren aurka egiteaz gain, Lan Harreman eta Babes Sozialerako Euskal Esparruaren beharra aldarrikatuko dute egun horretan. Dekretuari kontra egiteko dauden arrazoen artean, dekretu honek "kaleratzeak merkatu, langabezi prezioak murriztu eta enplegu prekario eta eskubide gabekoa onartzera" garmatzala azpimarratzen da. Honetaz gain, dekretu hau "PPren inposaketa, harrokeria eta probokazioaren" adierazle dela aipatzen du LABek.

37 Plaentxiar egin dira organu emaile



Joan zen larunbatean plaentxian organu emaileak egiteko mahaia jarri zuten Udaletxepean Gipuzkoako Giltzurrun Gaixoen Alcer elkartearen kanpainaren barruan. Guztira 37 lagun berri egin ziren emaile, mahaikideen esanetan "kopuru polita". Hala ere, "oin-dio be badao jentia bildurrez edo ez dakigu zegaittik emaile egiten ez dana. Oso garrantzitsua da emaile karneta egittia, gure heriotzarekin batera, gure organuak beste bati bizixka salbatzeko balio deizen".

Eudelen eta Batasunaren ilegalizazioaren kontrako mozioak



Joan zen ekainaren 3an egin zen ez ohiko Udal Batzarrean, Udalak Eudelek aurkeztutako “Demokrazia eta askatasuna defendatzeko eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko adierazpen zibikoa” deritzon mozioa onartu zuen. Mozioak EAJ-EA koalizioaren eta PSEE eta PP alderdien aldeko botuak jaso zituen, Batasunaren kontrako 3 botu. Mozio honek, gizartearen aniztasuna eta Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren defentsaren alde egiten du eta horrekin batera ETAREN jarduna gaitzetzen du. Hartutako konpromisuen artean, “demokrazia, askatasuna eta aniztasuna”ren alde egiteko Udal hitzarmen bat sinatzea eta herritarrei balore

hauen alde egiteko printzipioen zabalpena egitea aurrakusten dira. Batasunak bere aldetik, mozio alternatibo bat aurkeztu zuen “Euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko printzipioak” izenekoa eta Eudeleko mozioaren aurretik botaziopean jarritan, gainontzeko alderdien ezezko botua jaso zuena.

Ekainaren egin zen Udalean, ez ohiko Udal Batzarrean, Batasunak bere talde politikoaren ilegalizazioaren aurka aurkeztutako mozioaren botazioa. Mozio honetan Espainian Gobernuak bultzatzen duen ilegalizazioa, Frantziar eta Espainiar estatuek euskal herriaren aurka daramaten erasoaldiaren beste pauso bat dela azpimarratzen zuen. Mozio honen aurrean, EAJ-EA koalizioak beste mozio alternatibo bat aurkeztu zuen, . Mozio alternatiboa bozkatzerako orduan, PPko eta PSEeko zinegotziek aretoa utzi zuten, eta mozio alternatiboa EAJ-EA eta Batasunaren botuez onartu egin zen. Batasunaren mozioa botatzeko orduan berriz, EAJ-EA koalizioko zinegotziek ezezko botua eman zuten eta Batasunaren aldeko 3 botuek ez zuten mozioa aurrera ateratzeko indarririk izan.

Ikastetxeko lanak



Eusko Jaurlaritzan gertatutako gobernu aldaketa dela eta, aurreko proiektua eguneratu eta uztailean lehiaketa berri batera aterako da 180 miloi baino gehiagoko aurrekontu berriarekin. Hori egin ostean, erakuntza enpresa batek lanak bere ardurapean hartuko dituela aurrakusten du Udalak eta hortaz ikastetxea eraberritzeko lanak irailaren azkenaldera hasiko direla. Alkatearen hitzetan, “dirua emonda dago eta atzerapenen bat izan ala ez, lanak aurrean hasiko dira”.

Burdinezko barandilla berriak

Udalak, “udaletxe, Plaza Barri eta eliza inguruaren estetika edertu” nahian, Etxaburuetatik frontoira doan aldapako barandillak aldatu ditu, burdinezko barandilla berriak jarriaz. Udalaren asmoa, “inguru horri homogenotasun estetiko bat” ematea da, “herrira datorrenak, ikusinpaktu bat sentitu deixin”.

Egoitz Unamuno

Olako presa apurtzen hasi dira

Albesako zubia egiteko lanen lehen fasea dela eta, dagoeneko hasi dira Olako presa apurtzen. Presaren zati bat apurtuta eta urak bazter batetik bidalita, urteetan zehar urak presaren magalean batu dituen harri koxkor eta hondarrak aterako dituzte ondoko “ur sahiesbidea” betetzeko. Presaren magala hustu eta sahiesbidea betetakoan zubiaren erakuntza lanei hasiera emango zaie. 2. Fasea abuztuan hasiko eta urri inguruan hasiko dira zubia egiteko lanak.





HNOS. BENITO ANAIAK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)



PASCUAL CHURRUGA, s.a.

Hotzian eta beruan jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461

E-mail: general@pascualchurruga.com

Errekalde 21 20590 SORALUZE

Baserrian ekaina lana nahi aina



Eskuzko bedar batzea lan handia izaten da eta estimatzen da gazteen laguntza, gehiago gaztea langilea baldin bada (Boskoitxi) .

Urte guztian izaten da lana baserrian baina udaberri uda ingurua izaten da gaur egun baserrian lanik gehien egiten den urte sasoi. Garai honetan hasten da eguzkia berotzen eta eguna luzatzen eta ez du, goizean goiz lanari ekin eta iluntzean berandurarte lanean ez jarduteko aitzakiarik ematen. Hortuko lanak eta batez ere bedar onduak etxeratu beharrak, ematen ditu gaur egun lanik haundienak.

Zaharrak dira baserririk gehienetan, eguneroko lan hauei eta baserriko bizimoduari leialen jarraitzen diotenak. Zaharrek bai, baina gazte askok ez dakite zer galtzen duten. Pasada latzak ere hartzen dira bero haundia denean baina gozatu ere gozaten da baserriko lanarekin, eta ez gutxi. Bizi filosofia baten gordailu da baserria eta oraindik ere bizimodu hori bizi bizi mantentzen da baserri batzuetan, zoritxarrez gero eta baserri gutxiagotan.

“egun oskarbiaren goxotasunarekin, txorien kantuak lagun dituela hasten du eguna baserritarrak”

Goizeko freskuran jeiki

Goizeko freskuran jeiki, txapako sua piztu, katilukada esne zopa hartu, abarkak eta txapela jantzi eta egun oskarbiaren goxotasunarekin txorien kantuak lagun dituela hasten du eguna baserritarrak. Behiak eta txahalak, lana moztu berri duten ardiak edo moda modan dauden ponyak larrera atera eta saltaian azpiak egitea izaten da eguneko lehenengo lana. Oiloei, untxiei eta txakurrei jaten eman eta sukaldeko txaparen gainean bor bor dagoen lapikotik bokadutxo bat egin ostean, atxurra edo jorraia hartu eta hortura edo sorora bueltatxo bat eman behar.

Hortua bete bete izaten garai honetan; piperrak, idarrak, baba beltza, letxugak, berakatzak, bainak, kipulak, azalgak... denei egin behar izaten zaie kasu. Soroan ere zai daude arto eta baba landareak, elkarrengatik mieztu eta inguruko belar txarrak noiz jorratuko. Sail bat pasatu eta aurreko iluntzean ebakitako belarrari buelta eman ostean, eguerdi aldera tripazorriak zarataka hasten direnean, bazkaritara joateko ordua dela abisatzen du gorputzak. Mahairatu aurretik, izerditutako burua eta besoak potzuan garbitu eta fresko fresko, goiz guztian egosten izan den baba lapikuari ekiteko prest dago baserritarra. Hiru plateroko bazkaria egin ostean, ontziak garbitu eta bazkalostekoa egiteko ordua heldu zaio.

Arratsaldean bedar batzea

Ordubeteko siesta egin ostean, goizean buelta emandako bedarrari berriz ere buelta emateko garaia heldu da. Eskubara hartu eta banaka banaka, bedar



Izarre baserriko Julik ezin izaten dio lanerako tantazioari eutsi eta gogor jarduten du bedar batze garaian ere.



Iturbebarriko ardiei ere heldu zaie abrigua kentzeko garaia baina zoritxarrez ezin euren kabuz erantzi.



Munetako Josek gogor jarduten du artajorran, denborapasa ederra kolore pixkat hartu nahi duenarendako.

“Sasoian sasoikuak, fresko freskuak”

Goizeko 9:00etatik eguerdiko 12:00ak artean, astegunetan (domeka eta astelehenean ezik), Osumazpi, Agarrebeiztei eta Txurrukazpi baserrietako andreak izaten dira berdura saltzen Merkatu Plazako 2.pisuan (eta larunbatetan Osintxuko Lezarri baserrikoa ere bai), han izaten dira sasoian sasoiko produktuak eskuragai.

Dudarik gabe, merkatu plazako baserri-tar hauen produktuak dira herrian lortu daitezkeen produkturik freskoenak eta hurbilekoenak. Etxekoak, freskoak eta kalitatezkoak dira baina jendeak ez ditu erosten.

Ohituraren inertziaz bakarrik eusten diote goizero merkatura joateari eta gauzak asko aldatzen ez badira eurekin amaituko da herriko produktuak erosteko aukera. Berandu baino lehen, urterik urte herriko produktuen merkatuari eusten dioten baserri-tar hauen ahotsari lekutxo bat egin nahi izan diogu:

Ze eskeintzen dozue baserri-tarrok?

Berdura edarrak, egunian egunekuak, fresko freskuak. Aurreko eguneko iluntzian batutakuak ekartzen dittugu guk. Oin sasoi hontan; idarra, baba beltza,

letxugia... gerotxuao; tomatia, lekia, piparrak...sasoian sasoikua. Zelako gusto edarra izaten daben etxeko generuak.

Oin lenao baino gitxiao saltzen dozue ezta?

Asko be gitxiao. Len dana basarritarrrez beteta izaten zan goizero ta halata be 9:30etarako genero dana salduta izaten zan. Oin, hona behera etortzen da hainbeste jente... ta gora iñok be ez dau ixotzen. Jentia fruterixa ta supermerkauetara juaten da ta baserrikorik ez dau nahi. Hau penagarrixa da lenaokua ikusi dabenandako baina halaxe da ta...jentiak ez dauka honako jokerarik eta...

Zegaittik uste dozue dala hori?

Jentiak errezera nahi dau, dana toki baten hartzia. Ona bada, txarra bada, dana toki baten hartzia.

Zeuegaittik bildurtuko da igual jentia! Jentiak esaten dau batzuetan, hona sartu ta begiratu eitten doula. Ze eingou ba, bi begi badaukauz da. Guri ez dosku ardu- ra batari edo bestiari erosten dotsan. Saltziak, horretxek ardu- ra dosku guri.



Produktu freskoak eta merkeak eskura.

Kalidatezko produktuak bultzatzen ditue etiketa berezixekin da...

Horrekin propaganda edarrak eitten ditue... segi ta segi... baina ez dakiu harek zelakuak izango dian. Guk hemen dakauz edarrak baina hona ez jaku inor etorri.

Zer egin leike honi buelta emoteko?

Jentia erakarri. Hemen nahikua toki dao ta ipiniko balira beste gauza batzuk saltzen, ba... jente gehixao etorriko litzake. Behian bagende be, askoz gehixao salduko genduke. Aurrera be, jentia etortzen bada jarraitukotxau .

KALITATEA ESKURA DAUKAGU APROBETXATU DEIGUN!

“Afalostean, pentsamenduak ez du ematen Sorginen Laratza edo Gran Hermano ikusteko beste”

multzo bakoitzari buelta emango dio eguzkiak belarra bere osotasunean ondu eta ganbaran pilatutakoan usteldu ez dadin. Buelta ematearekin amaitu ostean, etxe barruko itzalean gordetzen da base- rritarra bedar batzeko ordurarte.

Eguzkiak gogor berotzen badu, aiton amonak ezinezegonean izango dira, behin eta berriz belarrak batzera joan behar dela errepikatuz. Azkenean, gazteak etsita, traktorea hartu eta eguzkiaren galdapean abiatuko da ebakitako belarra dagoen lekura. Batzuk eskubarekin eta beste batzuk sardearekin, gurdi mekanikoaren bizkarra ondo bete eta zelaia garbi garbi laga ostean, etxerako bidea hartuko du berriz.

Gurdikada belarra, neke haundiz ganbaran hustu eta gero, pontxe fresko bat hartu eta gorputzari garbitu bat emanda, iturripean deskantzutxo bat hartu eta gero, hortua busti eta heldu heldu dauden dauden amantalkada bat gerezi batuko ditu iluntziko freskotasuna aprobetxatuz. Hara eta hona dabil-

zan enaren joan etorriari harretaz begiratzeko astia hartuz, afari goxoaren bila sartuko da sukaldean amantal bete gerezi besoetan duela.

Afalostean, pentsamenduak ez du ematen Sorginen Laratza edo Gran Hermano ikusteko beste, eta kasurik onenetan, Goenkaleko nobedadeei begiratu eta lotarako bidea hartzen da. Hori bai,

aurretik etxe atarira irten eta eguraldi ona bada bankuan jarrita zeruko izarrei begira egonalditxo bat egin eta gero.

Kasurik onenetan eta egunik eguzkitsuenetan, halakoxea izaten da base- rritar baten ekaineko egun borobil baten kronika.


Egoitz Unamuno



Osuna Gaineko aiton amonek gogor jarraitzen diete hortuko lanei. 61 Urte elkarrekin.

Mendizaletasuna (Mendi Astea)

Finalista Eguna eta diapo emanaldiak izango dira Mendi astearen barruan



Urtero moduan Soralezeko Mendi Taldeak Mendi Astea antolatu du Finalista egunarekin batera.. Aurtengoa joan zen urtekoa baino arinagoa izango da baina erakargarria oso mendizaleendako. Hona hemen egitaraua:

Mendi Astea 2.002

Ekainaren 16an Finalista Eguna

9:00etan Atxolineria irteera Gila zubitik.

13:00ean Ezoziko jaiekin bat egingo dute.

Ekainaren 18^a, asteartea

Igor Mendizabal "Meru-Shivling 2.001 India"

Ekainaren 20^a, osteguna

Carlos Vieira "Pirineoen konkista" eta "Khan Tengri 7.010 m. (Marmolezko Magala)

Lekua: Soraluze B.H.I.

Ordua: 20:00etan

Atletismoa

Azkona Gipuzkoako txapelkun



Arrate Azkona plaentxiar atleta gazteak, absolutuko mailako Gipuzkoako altura jauziko Txapelketa irabaztea lortu du joan den larunbatean. Arratek, 1,69 metroko jauziarekin lortu zuen garaipena baina ez zen gustora gelditu, jauzi handiagoa egitea espero zuen eta. Igande honetan izango du bere ahalmena erakusteko beste aukera bat, Club Atletico San Sebastianekin Durangon klubun arteko ligan parte hartuko du eta. Zorte on!

Bolo txapelketa

Korta txapelkun San Andresen

Juan Cruz Arizaga "Korta" plaentxiarra izan zen joan zen ekainaren 1ean San Andresen jokatu zen Gipuzkoako Bola Txapelketako azken kanporaketaren irabazle. 76 Bolari elkartu ziren San Andresen eta guztien artean, Juan Kruz izan zen 7 koarekin 3 boletara txirlo gehien bota zituen, bigarren 6 txirlo botata Jose Luis Larreategi "Mendotz" gelditu zen. Herritarra izateak baditu bere bentajak bola jokuan, bolatokia ezagutzeak garrantzi handia izaten du eta.

Mendi atletismoa

Hiru haundiak

Datorren ekainak 21 eta 22 an ospatuko den Hiru Handiak frogan gure herriko hainbat kirolarik hartuko dute parte; Jon Arrieta, Gonzalo Ariznabarreta, Zigor Esnaola, Jose Alberto Oregi Javi Goenaga eta Iñaki Burunza. Froga gogorra da eta Euskal Herriko hiru mendi esanguratsu igo beharko dituzte: Gorbea, Anboto eta Aizkorri.

Pelotako emaitzak

Iñaki Jauregi Usurbilgo txapelketan finalerdietara iritsi da eta Añorgan final laurdenetan aurkitzen da 22 eta 19-ko emaitzaz nagusitu zen.

Onar Muguruza Urretxuko txapelketan final laurdenetara heldu da final zortzirenetako partiduan 22 eta 11 emaitzaz irabazi eta gero.

Erlei Txurrukak ezin izan du herrikideen maila ona mantendu eta Urretxuko txapelketatik kanpo gelditu da final zortzirenetan Aldaz naparraren aurka 22 eta 18 galdu ostean.

Futbola

Real-Athletic partidua zapatuan

Datorren zapatuan arratsaldeko 17:00etan, Ezoziko futbol zelaian herriko errealezale eta athleticzaleen arteko partidua jokatuko da. Idea duela bi urte bururatu zitzaizen baina aurtente ezin izan dute antolatu. Realeko kapitain Indio izango da eta Athleticekoa Monagillo. Indiok esan digunez herri erdia hasarre dauka partidua dela eta baina denok dakigun moduan partidura 18 pertsona joan daitezke soilik, beraz kanpoan gelditu direnak hurrengo urtean izango dute jokatze aukera.

Beraien artean ez dute inolako apusturik egin eta partiduan lortuko



den diru guztia Soraluze futbol taldearentzat izango da.

Xuban Catalan

Laskurain pelotari profesionala

“Oso posibilidade handiak dauzka, bi esku oso politak ditu” A. Maiz

Joan den domekan Aritz Laskurainek Eibarko Astelena pilotalekuan profesionaletan debutatu zuen Aspe enpresarekin. Partidu polita programatu zuten Aritzen debuterako, Agirre bikotekide zuela Galarza eta Eulate-rekin neurtu zituen indarrak. **Partidu azkar baten ostean 22 eta 10-eko emaitzaz galdu zuten.** Aritz partidu haseran oso urduri zegoen eta ez zuen bere tokia aurkitzen kantxan. Hamar bat sake errestatu barrik utzi zituen partidu guztian baina partiduan zehar bere kalitatea erakusteko parada izan zuen. **Asteburu honetan berriz ere Astelena jokatu du Aritzek, Galarza IV.enarekin Eulate eta Balezte-naren kontra, 17:00etan .**

Aritz noiz hasi zinen pelotan jokatzen?

Ikastolan nenbilena Madarik indako txapelketa batian hartu neban parte. Orduan 7 urte nituan eta pelota zer zan be ez nakixan. Esan leike kasualidaz hasi nintzala.

Zelakua izan da afizionatuetatik profesionaletara saltua?

Partidu bakar bat jokatu zaila da erantzutia. Domekako partiduan ez neban igarri saltorikan ez nitzalako gustora egon kantxan eta emondako mailakin afizionatuetan be ez neban irabaziko



Josean Tolosa
Telebistako esataria

Salto handia izaten da eta gaur partidu zaila jarri die. Laskurain hori pasa zaiola uste det; lotuta hasi da nerbio eta hola pelotan ez dao egitterik. Gero partiduan sartu da eta ikusi da bi eskuekin dotore egiten duela pelotan baina gaur ez du dakina ez du jokatu. Etorkizun handia du.



Laskurain beste pelotarienkin batera partiduen haseran.

partidu hori.

Zela aurkitu zinan zure debut partiduan?

Banakixan nerbio asko eukiko nituala eta partidu haseran korrika eitten egon nitzan izardixa ahalik eta azkarren botatzeko. Haseran nere burua nahiko ondo ikusten neban baina ezin izan nitzan partiduan sartu, pelotak afizionatuetan baino bizixauak zian arren ezin izan neban ezer egin.

Oin profesionaletan gehixago entrenau biharko dozu ezta?

Bai, lehen pelotan afizinoz nebilen

baina oin pelotia nere lanbidia da eta entrenamendu gogorra edo espezifikoa egiten ditud. Frontoian Pampi Ladutxe-kin aritzen naiz beste pelotari profesional batzuekin batera eta alde fisikua preparatzeko entrenadore pertsonal bat hartu dot.

Aurrera begira zein da zure helburua?

Lehenengo bigarren mailan leku bat eittia eta gero gerokuak.

Zorte on Aritz.

Eskerrikasko.



Antton Maiz
Pelotari prestatzailea

Oso posibilidade handiak dauzka, bi esku oso politak ditu. Gaur pentsatzen dut nerbio egonda dela. Sakeakin da nahiko fallo egin ditud baino ikusten zaizkio oso postura politak bi eskuekin eta partiduak jokatu behar ditud eta jokatu ezker nik uste dut etorkizun handia duela.

Motxian

Zenbat txapel etxian? 15

Eta garaikurrak? 47

Pelotari moduan lorpenik haundixena? Debutatzia.

Pelotaririk mirestuena? Barriola eta Ruiz.

Frontoirik gustokiena? Tolosako Beotibar.

Pelotak, zelakuak? Bote bajutxukuak eta jokatze modukuak.

Zeinen kontra jokatze gogua? Primerakuen kontra.

Ezkerra ala eskumia? Ezkerra obia eta elegantiagoa daukatela esaten dabe.

Laskurain peñiakin afaritxoren bat? Uff hasi gara...

Xuban Katalan

Inagurazioak eta jai-giro latza Ezoziko Jaixetan



2.002ko Ezoziko jaixak ere heldu dira. Zeharo eraberritua gelditu da Ezoziko eta jaiak aprobetxatuz egingo da parke eta bolatoki berriaren inagurazio ofiziala.

Ermita berri berri izan arren, aspaldiko partez Mezarik gabeko jaiak izango dira aurtengoak. Hala ere seguru "kristau" mordo bat batuko dela Ezozira.

Hona hemen jaietako egitaraua:

Ekainaren 14an, ostirala JAIKEN HASIERA

20:00etan: Jaien hasiera txafildo jaurtiketarekin.

23:00etan ERASO ETA COOL PANIC. Ondoren txokolata-tada.

Ekainaren 15ean, larunbata INAGURAZIOA

12:00etan: BOLATOKI ETA PARKEAREN INAUGURAZIOA.

Xabier Amuriza eta Ion Maia bertsolariak.

Urrats dantza taldeko dantzari gazteak eta Herriko Txistulariek saio polit bat eskeini ondoren, Saioa Lizarralde eta Leire Iturralde trikitilariak.

16:30etan: V. MUS ETA TRUK TXAPELKETA.

21:30etan: AFARI HERRIKOIA. Txartelak Arrano, Gaztelupe, Ezoziko eta Armendi tabernetan egongo dira salgai. Ondoren EUXEBIO LASARTE TXISTE KONTALARIA.

23:00etan EZOZIKO AUZOKO 1. BOLO TXAPELKETA.

14:00etan LISKER taldearekin dantzaldia.

Ekainaren 16an, igandea FINALISTA EGUNA

9:00etan: S.K.B.rekin MENDI IRTEERA Gilatik irtenda.

12:30etan: Bergarako Moises Azpiazu dantza taldekoek DANTZA SOLTE ERAKUSKETA eskeiniko digute Mendotz eta Bixkai trikitilarien laguntzaz.

13:00etan: S.K.B.-ko Mendiko Finalistei ongi etorria emango diegu Ibilixan Ibilixan Bertso Eskolako ikasleen saio polit batekin. MENDIZALEEI ONGI ETORRIA egiten diegun bitartean, salda eta txorizoa banatuko da.

14:30etan: Ezoziko jatetxean BAZKARIA. Bazkaldu nahi duenak aurrez txartela eskuratu beharko du, S.K.B.-ko lokalean edo Ezoziko jatetxean.

17:00etan: UMEEN JOLASAK.

19:00etan: II. BOLO TXAPELKETA.



Pil-pileanek aurten bigarren aldiz antolatu duen Sagardo Egunak, arrakasta izugarria izan zuen herrian. 200 Litro sagardo baino gehiago edan ziren, ekarritako dena eta gauean...trikitixa eta jai giro ederra Gaztetxean. Arratsalde borobila!



Sagardo Egunak motorrak berotu zituen Euskal Jaixan eta horri, eguraldi ona gehitu zitzaionean, plaentxiar asko hurbildu ziren dantzariak ikustera. Antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete egun hau antolatzen lagundu zuten guzti guztiei.

“La casa de Alba Bernardez” antzerkia Zubia taldearen eskutik

Zapatu honetan, Soraluzeko Zubia antzerki taldiak aurkeztuta “La casa de Alba Bernardez” antzezlanak izango da, Eibarko Unibertsitate Laboralean arratsaldeko 20:30etan. Antzezlanak ikustera joan nahi dutenak, Udaletxeak jarriko duen autobusean joateko aukera izango dute eta autobuserako eta emanaldira-ko sarrerak aldeztu aurretik lortzeko, EPAko lokalean edo antzezlanean partehartuko dutenetako norbaitengana jo beharko da. Kaka asko aktoreei eta arrakasta izan dezazuela.

Ion Aranda

“Bizitza emongo neuke benetan maitte doten pertsona bategaittik”

lonek euskeraz berba egittia asko gustatzen jakola aitortu dosku galderatik galderara, eta mantso baina txukun eta arreta berezixa jarrixaz, euskeraz jarraitu dau gure arteko solasaldixa. Inguruko lagun batek kantuan jarduteko daukan trebezia goraiatu eta Karaokietan hainbat sari irabazi dittuala jakinarazi dosku. Orduan kantu bat oparitu soku ondoren datozen galderon sarrera gisa. Ion Aranda kitarra batekin edozeinen bihotza samurtu leiken mutil bihotzbera...

Zelakua da Ion?

Ba ez dakit hori jentia esan bihar-ko dau, ezta?

Zaletasunak?

Futbola, abestia, gitarria, lo egittia eta bolajokua (hiru txirlotakua eehh)

Zenbakixa, animalixa, koloria eta lekua

13a, tiglia, beltza eta estaziñua (bodegia)

Bapo geratzeko moduko bazkari-xa?

Makarroiak eta legatza. Edateko kas laranja.

Zer eruangoz zenduke irla batera?

Neska bat, badaezpada be! baloia, gitarria eta paitxatxo flotadoria.

Noiz, nora, zeinekin eta zertara?

Berdin jata noiz, nere aittaren herri-
ra (Aizonera) nere lagunekin ondo pa-
satzera.

Ezin duzu jasan?

Hipokresia, jende faltsua.

Aholku bat?

Ez emon buruari buelta larregi txi-
kikerixekin.

Munduko gauzarik garrantzitsue- na?

Aita eta ama!!

Amets bat?

Abeslarixa edo futbolistia izatia
(futbolista izateko berandutxo)

Izan dozun amets xebreren bat?

Hiru egunetan jarraixan hauxe amestu
neban: etxe misteriotsu baten nenguan
eta kanpuan mila koloretako argixak
ikusten ziran.

...emongo neuke...

Bizitza emongo neuke benetan

Bertso Begiz

*Bodegako Jon, Asunen eta
Mañuaren semia da,
guraso eta bodega dittu
gauz maittena biharbada.*

*Maitte dozu herria,
aitaren jatorria,
gitarra eta kantua,
karaokean eta bizitzan
sobran dozu talentua.*

Etxebarri

(Doinua: Iparragirre abila dela)



Ion Aranda

maitte doten pertsona bategaittik.

Egixa da... Herri hau eta aittarena onenak dirala.

Egun borobila?

Nere iloba jaixo zan eguna.

**Marrazki bizidunetako ze pertso-
naiarekin identifikatzen zara?**

Coyoterekin, atsegin dot..nik buka-
eraraino, etengabe jarraitzen dot lortu
nahi dotena lortu arte, berak korreka-
minosekin egitten daben moduan.

Bitxikeriaren bat?

Behin Zaragozara juan nintzan au-

tobusian, gero nire izebaren etxera jua-
teko taxi bat hartu neban eta heldu gi-
narian, zera esan notsan: “Nik hemen
osaba izebak dittut Angeles eta Emi-
lio...” “Tira!” esan zeban gidarixak,
“nere senitartekuak be badira!” A zela-
ko kasualidadia!!! Ez zoztan ezer ko-
brau...

Zerbait gaineratzeko...

Bai...Eskaneautakua sartu: Aupa
Soraluze, Soraluze maite dut...

*Aupa Soraluze, Soraluze maite
dut.*

Gururu



Limpiezas
Trejo, S.L.

**Limpiezas
industiales**

Rekalde, 30 behea
Tel.: 943 75 25 57
Faxa: 943 75 25 56
20.590 SORALUZE



S.A.
Industriak


Eskulanetarako tresnak

Industrialadea, 17 - 20590 Soraluze
Tlfonoa: 943 75 20 00 Faxa: 943 75 19 80 E-maila: fer@nexo.es

Argazki zaharra

Aizkora jokua Ezozin

1.980. Urte inguruko argazkixa da honakua. Orduko Ezoziko jaixetan, Itsasoiko Josek, Kiruetako Luissek, Arritxako Juan Karlosek eta Ezoziko Jose Ramonek jokaturako aizkora jokua azaltzen da irudittan. Urte haretan, auzokuen arteko herri kirolak egin zittuzten eta baita mutil gaztiak elkarren arteko indarrak neurtu be. Onduan auzokuak eta neskala-gunak begira zittuztela, gogor egingo zotsen elkarri garaipena lortzeko. Jokatu zebenak goguan izango dabe zeinek irabazi zeban eta galdetu eurrei, Ezoziko jaixetan han izango dira eta.



Egoitz Unamuno

Eukararen ajieri, sendabelarra



Zertara jokatu dugu?
GAIZKI



Zertan jokatu dugu?
ONDO

Zertan jokatu edo zer jokatu esaten da eta ez zertara jokatu. Gogoan izan jokatu aditzaren ordez egin, ibili, jardun...aditzak ere berdin-berdin erabil daitezkeela

- Futbolian jokatu dogu
- Saskibaloian egingo dogu?
- Musian dabitz/ musian dihardue
- Zeinek ein nahi dau pelotan?


Jokoari izena ekintza errepikakorren batek ematen dionean –ka atzizkia erabili ohi da:

- Ikusi-makusika ibili
- Bale-baleka ibili

Eta literaturaz zer?

Xake Mate

Egilea: Alberto Ladrón Arana
Bilduma: Literatura 220
Orriak: 132
Salneurria: 10 euro
Data: 2002ko maiatza




Xake Mate eleberri laburra da luzeraz, baina indartsua sortzen duen giroz eta intentsitatez. II. Mundu-Gerraren osteko Alemaniara garamatza nobela honek, bertako hiri porrokatu batean bizi baita pertsonaia nagusi eta kontalaria: mutiko bakarti bat, gerrako miserietan...

Galdera: Zer da Xake Mate?

Bestela bazkideen artean zozketatu dira

Aurreko lehiaketako irabazlea: Jesus Ariznabarreta
Erantzuna: Barrenetxe baserrixa.

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa

zuri esker
gracias a ti



MAPFRE
MAPFRE SORALUZE



JUAN LUIS IBARZABAL ARRIETA

JULIA IBARZABAL ARRIETA

Gabolats, 5 b
Tel.: 943 75 16 58 - 943 75 30 12
Eskuko telefonoa: 649 49 79 59 Faxa: 943 75 16 10
20.590 SORALUZE



Lakuesta

Optika



Ikusmen arazozen frogak eta argi-
bideak
Argazkiak errebelatzen ditugu

Santa Ana, 22 C- behea
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 30 59

Lonbide taberna



*Pintxoak
Ardoak, kafeak eta likoreak*

Errabal kalea, 9
Tfnoa 943 75 14 07

Telefonia 75 24 09

ARRANO tabernia

“ Giro euskalduna eta sanua ”



ETORRI ETA GOZATU
EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK

etxera

Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarreak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.
Tlfona: 943 75 17 82

20590 Soraluze
GIPUZKOA

Javier Alonso Zelaieta

Hortz klinika



Mediku estomatologoa
434 zenb. kol.

Atxuri, 1 - 1. eskuma
Tfnoa 943 75 16 13

Goizeko 6:30-etatik
aurrera zabalik!!

Gosarixak eta
pintxo
goxo goxuak !!



Errabal kalea, 15 Tfnoa 943 75 18 34

Instalaciones Kalebarren S.L.






GAS INSTALAKUNTZAK
ETA PROIEKTUAK
KALEFAKZIOA ETA AIRE EGOKITUA
ITURGINTZA OROKORREAN

20590 SORALUZE TEL. / FAXA: 943 75 23 07 ESKUKO TEL.: 608 67 40 70 / 607 40 37 92
48017 DEUSTU TEL.: 944 75 99 60 POSTA ELEKTRONIKOA: KALEBARREN@INICIA.ES

IÑAKI IÑARRA

HARATEGI ETA
URDATEGIA

Kalebarren 29
Tfnoa 943 75 12 49
Soraluze

San Juan Gaba

**Gau majikua
izango da. Etorri!**



Sorgin dantzako entsaio eguna ekainaren 20xan izango da arratsaldeko 20:00etan frontoian. Animau!



Egitaraua: 21:30etan afari merienda. 23:00etan Sorginak sua piztuko dabe. Horren ostian; Sorgin Dantzia, urteko oroitzapen txarren erretzia, edabe majikua eta kalejira edar bat.

ANTOLATZAILIA: PIL-PILEAN KULTURA ELKARTIA LAGUNTZAILIA: SORALUZEGO UDALA



**Peugeot 307. Ez da zenbaki bat bakarrik
2002 urteko autoa da Europan**



Ze puntutaraino izan dezakezu konfidantza auto batekin? Punturik goreneneraino. Batu eta irabazi egin dugu. 6 Airbag (aurreko inteligente 2, alboko bi eta kortina moduko sabaiko bi, aurreko eta atzeko bidaiariendako) eta ABSez gainera, zure eskura jartzen ditugu segurtasuneko elementurik aurreratuenak:

EVA (larritasunezko frenatuekoko laguntza), REF (frenatuaren banaketa elektronikoa), ECS (garondoko lesioen aurkako babes sistema), oiñ-jartzeko aktiboa,

Norabide habe atzeragarria eta ESP (orekaren kontrol dinamikoa). Xehetasun eta kontrol osoa.

ETORMOBIL
Otaola etorbidea 22
Tel.: 943 20 09 66
EIBAR

307 
PEUGEOT